

LOIOLA'KO SENDIA

Aitaren aldetik Iñigo'ren aitita eta amama.

Joan Loiola'koa eukan aititak izena, eta Santxa Iraeta'koarekin ezkondu zen. Joan Oñaztar bandokoa eta Santxa Ganboatarra, biak arerioak izan arren maitasunarentzat ez dago mugarik.

Loiolako Joan gudazale artoa zan, eta bere bandoko beste batzuekin alkartuta, 1456. urtean, Azkoitia'ko eleizatean erronka edo desafio papera Gipuzkoa'ko urien aurka josita itxi eban: "Gure dorre-etxeak erre, gure etxeak il eta gure ondasunak lapurtu dozuezalako, zuoi Azkoitia, Azpeitia, Deba, Mutriku, Getari, Tolosa, Ordizia eta Segura'ko urioi guda gorria egingo deusugu, zuen pertsona eta ondasunak ondatu arte".

Ainbestereinoko arrokeriaz naska-naska egiñik, uri oneik "senide nagusien" dorre-etxeak erre eta ondatu, eta onein jabeak, guda gura ba'eben, mairuen aurka Andaluzia'ra bialdu ebezan.

Joan Loiola'koak Kadiz ondoko Ximena errira erbesterturik joan bear izan eban...

Andik iru urte barru Enrike erregearen amnistiaz baliaturik euren etxeetara itzultzeko baimena lortu eban, baita euren dorre-etxeak berriz eragiteko baietza be, baina ez barriro dorre-etxe legez, orma lodi eta sendoz, ladriluz baino, guda egiteko balio ez dagien.

Orregatik gaurko Loiola dorre-etxea erdi arrizko eta erdi ladriluzko ikusiko dozu. Iñigo'ren aitita Joan Tolosan bapateko eriotzeaz il zan, zein urtetan ez dakigu.

Santxa Iñigoren amama 1.473. urtean il zan.

Amaren aldetiko Iñigoren aitita eta amama.

Aitita Martin Likona'koa lege gizona zan, eta bere jaioterria Ondarru zalako "doktoze Ondarru" deitzen eutsuen. Balladolizko bizkaitarren txanzillerian entzule eta Fernando errege katolikuaeren kontseilari izan zan.

1.459. urtean Azkoitiako "senide nagusien" Balda etxea erosi eban, eta azkoitiarren artean beti "bizkaitarra" izenaz ezagutua izan zan.

Iñigo'ren amama, Martinen emaztearen barri garbirik ez dakigu. Nongoa zan? Noz jaiot zan? Zelan eukan izena? Markese? Grazia? Maria Zarautz'koa? Kondailarien artean zenbat buru ainbat aburu.

Iñigoren aita.

Beltran Loiola'koa. 1.467. urtean Marina Likona'koarekin ezkondu zan, eta 13 seme-alaba izan ebezan.

Urte batzuk Enrique IV. erregearen serbitzuan jardun eban, eta 1.474-an, errege au il zanean, Kastillako erreñua norentzat izango zan guda sortu zanean, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, "La Beltranejaren" aurka, Isabel'en aide jarri ziran.

Beltran Loiola'koak TGro eta Burgos'ko sitioan aurrengo lekuan jokatu eban, baita Hondarribia'ko gazteluaeren zaindaritzan ere. Azkenez Andaluzia'ko lurraldeetan mairuen aurka gudari izan zan, 1949. urtean Boadil erregea Afrika'ra bialdu arte.

Lan oneingatik Isabel eta Fernando erregeak Beltran'eri loiolatarrak antizifiatik zeuken Azpeitiako parrokiako zaindaritza, bere amarrenakin, ber-onartu eutsuen. Norbaitek esan dau Loiolako etxea Azpetiako parrokiako "gotzain" txiki bat legez zala. Loiolako nagusiak izendatzen ebezan parrokoa eta abadeak, amarrenak kobratu, eleizako kulta zaindu eta abar.

Iñigo'ren ama.

Marina Likona'koa. Iñigoren amari buruz, tamalez, gauza askorik ez dakigu. Ondarrutarra zala bai, Azkoitia bizi izan zala be bai, baita esan dogunez, 1.467. urtean Loiola'ko Beltran'ekin ezkondu zala. Iñigok bere autobiografian ez dau iñoiz be amarik aitatuten, Iñigo txiki zala il zala ziur esan daiteke.

Iñigoren koñata.

Madalena Araotz'tarra, Martinen emaztea. Emakume maitagarri onek bete eutsan Iñigori amaren zuloa. Bergara'koa zan, eta gaztetan Isabel erregeiñaren "dama de honor" izan zan. Okañan Loiolako Martin'ekin ezkondu zanean erreginak Andra Mariaren irudi txiki polit bat opari emon eutsan. Iñigok bere koñata asko maite eban. Geroago Iñigo Erroman bizi zanean jesulagun gazte batek here gurasoekin asko gogoratzen zala autoritu eutsan Iñigori. Eta orduan Loiolako semeak gazte ari bere biotzeko eskutuki bat agertu eutsan: "nik bere neure errezu liburuan koñataren antz andia daukan estanpa-irudi bat daukat, eta ari begiratuta neure ototzetan nastu egiten nazenez, paper batekin estaltzen dot".

IÑAKI GOIKOETXEA S.J.